

Udan, kontsumitu arduraz

Udan uraren kontsumoak gora egiten duenez, praktika onak hartzeak ura xahutzea saihesten du eta gure faktura murrizten du.


Uda ur kontsumoa areagotzen den urtearen zati bat da, eta gure hirian hileko balio maximoak ekainetik irailera bitartean izaten dira. Igoera horren arrazoi nagusia **lorategiak ureztatzeko beharra eta igerilekuen** eta jolas eta aisialdi espazioen funtzionamendua dira. Vitoria-Gasteizko Udalarentzat urteko kontsumoaren %45-%50

artekoa izan daiteke, meteorologiaren arabera. Ere mu pribatuan, bereziki **familia bakarreko etxebizitzet** eragiten die (horietako askok lorategia dute), baita **landa etxebizitzet** ere, izan ere, hilabete horietan, **hiriko etxebizitza bakoitzeko batez besteko kontsumoa %130etik gorakoa** da.

- **Ahal den neurrian, mahukaren erabilera minimizatu behar da** berdeguneak eta baratzeak ureztatzean, patioak edo ibilgailuak garbitzean eta erabilera ludikoetan.

Ureztatzeko, onena aspertsio edo mikroaspertsio sistemak erabiltzea da, eta, batez ere, tanta jarioaren bidezkoa. Etxean, ureztatze eraginkorrerako sistemak sor daitezke mahuka zulatuetatik edo botiletatik abiatuta (Internetek trikimailu erraz ugari eskaintzen ditu), dagoeneko merkaturatzen diren sistemez gain. Autoa garbitzeko, aukerarik eraginkorrena beti autogarbitzeta gune batera joatea da.

- Berdeguneetan, **lorategia behar bezala mantentzea komeni da, kontsumoa murriztera zuzenduta**. Horren barruan sartzen da belarraren sega altu eta ez oso ohikoa, ureztatze sistemetan ihesik ez dagoela egiaztatzea eta une egokian dagokion ura ematea, iragarpen meteorologikora egokituz eta eguneko lehen edo azken orduan ureztatuz, gehiegizko lurrunketa saihesteko.



- Etxebizitzak **igerilekua** badu, komeni da berritzen den uraren bolumena araudiak ezartzen duen gutxienera egokitzea, eta erabiltzen ez denean estaltzea, garbi mantentzeko eta lurrunketa murrizteko.

- Maizago dutxatzen bagara ere, **ez da hiru minutu baino gehiago behar dutxa bakoitzeko**. Bainuontzia erabiltzea baztertu behar da: dutxa batek baino 10 aldiz ur gehiago kontsumi dezake.
- Hidratazioa garrantzitsua da egun beroetan, eta **iturriko ura da aukerarik onena**: merkea eta irisgarria da, kalitate berme handienarekin eta ontzi hondakinik sortu gabe. Motxilan berriro betetzeko moduko botilatxo edo kantinplora bat eramateak ez du esfortzurik eskatzen. Etxean, garrantzitsua da hozkailuan ur freskoa edukitzea, iturriko ura hotza atera arte itxaron behar ez izateko.
- Uneoro **bete behar dira instalazio publikoak ondo erabiltzeko gomendioak**, eta igerilekuetan, kirol zentroetan, iturrietan eta abarretan kontsumo eraginkorra egin behar da. Uraren kudeaketa efizienteak ahalegin partekatu izan behar du.

Uraren kostuaren azterketa estatuan

Horniduren eta Saneamenduaren Espainiako Elkarrekin (AEAS) Espainiako hiri uren tarifen azterketa egiten du urtero, ordenantza fiskaletatik, ura kudeatzen duten enpresetatik, probintziako aldizkari ofizialeetatik eta abarretatik hartutako informazioan oinarrituta. Helburua da **uraren lurralde bakoitzeko prezioaren emaitza adierazgarria lortzea, kalkulatzeko metodologia propio bat aplikatuz** (BEZa kontuan hartu gabe).

2018ko datuekin egindako 2020ko azterlanaren arabera, Vitoria-Gasteiz (Araba ordezkatuz) **estatu**ko urik merkeena duen **10. hiria** da (1,25 €/m³).

Biztanle bakoitzeko batez besteko kontsumoa ere kontuan hartzen bada (AEAS, INE edo erreferentziako hiri operadoreen iturri desberdinetatik aterata), **persona bakoitzak etxean erabiltzen duen uraren urteko kostuaren hurbilketa bat lor daiteke**:



Azterlanaren emaitzak koherenteak dira AMVISAK egiten dituen analisiekin, izan ere, 2018an, familien %50en urteko ur hotzaren faktura 100 € baino gutxiago zen (BEZik gabe), eta hiriko etxebizitzak %14k baino ez zuten 150 € gaitzitzen.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org